DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Idazkaritza nagusia
Secretaría general
Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2020ko otsailaren 25an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen, gehiengoz:

*"Datorren otsailaren 27an, Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoaren (RASD) 44. urteurrena beteko da. Egun horretan, Saharako herriaren zoritxarreko egoera gogoratuko dugu, baita lau hamarkada baino gehiago batzen dituen auzi baten ebazpenaren luzapen onartezina ere.*

*Behin baino gehiagotan eta hainbat bidetatik adierazi du Donostiako Udalak saharar herriarekin elkartasuna duela eta haren kausa legitimoa babesten duela. Beste behin ere, Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoaren sortu zeneko 44. urteurrena dela eta, behean sinatzen duten taldeek hau sinatu nahi dute*

*ERAKUNDE ADIERAZPENA*

*1. Donostiako Udalbatzak, Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoa sortu zeneko 44. urteurrenarekin bat, Saharako herriarekiko elkartasuna adierazten du eta haren legezko kausaren aldeko babesa berresten.*

*2. Donostiako Udalbatzak berretsi egiten du Saharako herriarekin eta haren ordezkariekin dituen lankidetza bideekiko konpromisoa.*

*3. Donostiako Udalbatzak Nazio Batuei hertsiki eskatzen die, berandutu gabe, gatazka horren konponbide zuzen eta behin betikoa*

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 25 de febrero de 2020, aprobó, por mayoría, la siguiente Declaración Institucional:

*"El próximo 27 de febrero se cumplirá el 44 aniversario de la República Saharaui Arabe Democrática (RASD), una fecha que nos sirve para recordar la desdichada situación del pueblo saharaui y la inaceptable prolongación de la resolución de un contencioso que suma ya más de cuatro décadas.*

*El Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián ha expresado en numerosas ocasiones y por diversas vías su solidaridad con el pueblo saharaui y su apoyo a su legítima causa. Una vez más, y ante la proximidad de este 44 aniversario de la creación de la RASD, los grupos abajo firmantes desean suscribir la siguiente*

*DECLARACION INSTITUCIONAL*

*1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián, en coincidencia con el 44 aniversario de la creación de la RASD, expresa su solidaridad con el pueblo saharaui y reafirma su apoyo a su legítima causa.*

*2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián reitera su compromiso con las vías de colaboración que tiene establecidas con el pueblo saharaui y con sus representantes.*

*3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta a Naciones Unidas a que promueva sin más dilación la solución justa y*

10740n XVII

*sustatzeko, Saharako herriak autodeterminatzeko duen eskubidea erabiltzea barne, erreferendum aske eta garden baten bidez, amaitu gabeko deskolonizazio prozesuaren amaiera gisa.*

*definitiva de este conflicto, que pasa por el ejercicio del derecho de autodeterminación del pueblo saharaui mediante la celebración de un referéndum libre y transparente, como culminación del proceso de descolonización inacabado.*

*4. Donostiako Udalbatzak Espainiako Gobernuari eskatzen dio estatus diplomatikoa eman diezaiola Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkaritzari; Saharako Arabiar Errepublika Demokratikoa onar dezala, eta Mendebaldeko Sahararako Nazio Batuen Bake Plana betetzerakoan oinarritutako bidezko eta behin betiko konponbidea lortzeko beharrezko ekimenak susta ditzala.*

*4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián solicita al Gobierno español que otorgue un estatus diplomático a la representación del Frente Polisario en España; que reconozca la República Arabe Saharaui Democrática y que promueva las iniciativas necesarias para lograr una solución justa y definitiva sobre la base del cumplimiento del Plan de Paz de las Naciones Unidas para el Sahara Occidental.*

*5. Donostiako Udalbatzak adierazi du nahi duela aldarrikapen horiek guztiak, Udalbatzak beste zenbaitetan adierazitakoak, ahalik eta eperik laburrenean gauzatu daitezela, Saharako herriaren etorkizunerako askatasun eta justizia bidea ahalbidetzeko".*
=============================

*5. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / san Sebastián manifiesta su deseo de que todas estas reivindicaciones, que ya han sido expresadas por esta Corporación anteriormente, se hagan realidad en el plazo más breve posible, posibilitando así un camino de libertad y justicia para el futuro del pueblo saharaui".*
=============================

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2020ko martxoaren 5an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 5 de marzo de 2020

**IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL**

**Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**